



BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ATMOSFERARA EGINDAKO EMISIOAK NEURTZEKO ETA INSTALAZIOETAKO USAINA MODELIZATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3199.

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Carlos Arroyo Manzanedo
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ATMOSFERARA EGINDAKO EMISIOAK NEURTZEKO ETA INSTALAZIOETAKO USAINA MODELIZATZEKO ZERBITZUA.

2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Kontratuaren xedea lan hauek egitea da:

- usainaren emisioa zehaztea eta azterketa olfatometrikoak egitea;
- usainen sakabanatze atmosferikoaren modelizazio matematikoa;
- berotegi-efektuko gasen kontzentrazioa neurtzea;
- askotariko kutsatzaile atmosferikoen kontzentrazioa neurtzea eta dagozkion Ingurumen Lankidetzako Erakundearen (aurrerantzean, ILE) txostenak egitea, eta
- hasierako ILE txostenak egitea, oinarri hartuta atmosfera kutsa dezakeen jardueraren (AKJ) baimen aplikagarriak; Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (BBUP) askotariko instalazioetan.

3.- Loteka banatzea: ☒ Bai ☐ Ez

- 1. lotea: Usainaren eta berotegi-efektuko gasen emisioa zehaztea eta sakabanatze-modelizazioak.
- 2. lotea: Kutsatzaile atmosferikoen neurketak eta hasierako ILE txostenak.

Lizitatzailleek aukera izango dute bi loteetarako eskaintzak aurkezteko, eta ez dago kontratista berari adjudikatutako loteen kopuruaren mugarik. Nolanahi ere, lizitatzailleek ezin dute lote bererako proposamenik aldi baterako elkarte gisa aurkeztu aurretik banaka aurkeztu badute, eta ezin dira egon aldi baterako elkarte batean baino gehiagoan.

4.- CPV: 90731400-4 Kutsadura atmosferikoaren jarraipen eta neurketarako zerbitzuak



B.- KONTRATUAREN XEDEA

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ

6.- Izaera juridikoa: ☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

EHUN ETA BERROGEITA SEI MILA ETA ZAZPIEHUN ETA HOGEI (146.720,00) EURO, BEZIK GABE.

- 1. lotea: Ehun eta bost mila eta bostehun eta berrogeita hamar (105.550,00) euro, BEZik gabe.
- 2. lotea: Berrogeita bat mila eta ehun eta hirurogeita hamar (41.170,00) euro, BEZik gabe.

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 146.720,00 euro

Loteak: ☒ BAI ☐ EZ

Loteen balio zenbatetsia:

- 1. lotea: 105.550,00 euro (BEZik gabe)
- 2. lotea: 41.170,00 euro (BEZik gabe)

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 169,53-227,07

	1. lotea	2. lotea
2026. urtea	52.595,00 €	15.555,00 €
2027. urtea	39.755,00 €	22.235,00 €
2028. urtea	13.200,00 €	3.380,00 €
GUZTIRA	105.550,00 €	41.170,00 €

5.- Prezioen berrikuspena: ☐ BAI ☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin: ☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikagarria



D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HOGEITA LAU (24) HILABETE.

2.- Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena. ☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria

5.- Kontratua exekutatze tokia: BBUP

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (1. lotea: 52.775,00 € eta 2. lotea: 20.585,00 €)

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteetan egindako eta kontratuaren xede diren izaera bereko edo antzeko zerbitzu nagusien zerrenda. Urteko zenbateko metatua exekuzio handieneko urtean kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren ehuneko 70ekoa edo gorakoa duten zerbitzuak bakarrik hartuko dira kontuan.

Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, ABEEK osotara egiaztatu ahal izango du kaudimena, eta ez da beharrezkoa izango enpresa bakoitzak banaka bete ditzan baldintza guzti-guztiak.

☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Preskripzio tekniko partikularren agirian, hala 1. Loterako nola 2. Loterako, jasotako laginketa, neurketa eta txosten guztiak egiten dituzten enpresak inskribatuta egon beharko dira urriaren 16ko 212/2012 Dekretuaren Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroan (212/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Ingurumen-lankidetzako erakundeak arautzen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen Lankidetzako Erakundearen Erregistroa sortzen duena). Egiaztapenek barne hartu beharko dituzte agiri honen xede diren parametroei dagozkienak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.



BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Ez da aplikagarria

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, l. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

- a) Prezioen zerrenda.

Zerrenda horretan, preskripzio tekniko partikularren agirian zehaztutako unitateen unitate-prezioak sartu behar dira, bai eta lehiakideak aplikagarri gisa proposatzen dituen unitateenak ere. Hori guztia, preskripzio tekniko partikularren agiriko 9. apartatuan ezarritako kondizioen arabera.

- b) Kontratuaren aurrekontua.

Lan guztiak exekutatzeke aurrekontua, prezio unitarioetan egindako lanen batura oinarri hartuta; lan horien neurketak bat etorri behar da aurrekontu partzialetakoarekin.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Kontratua adjudikatuko zaio, prozedura ireki bidez, eskaintzarik txikiena aurkeztzen duen lizitatzailerari; izan ere, egin beharreko lanen ezaugarriengatik, adjudikazioa erabakitzen duen irizpide bakarra da.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkeztzen badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Ez da aplikagarria

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO KONDIZIO BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Adjudikaziodunak bermatu egin beharko du beharrezko diren bitarteko teknikoen eta giza taldearen etengabeko eragingarritasuna, eta behar den prestakuntza eta esperientzia duten teknikariek egin beharko dituzte proposatutako taldean gertatutako baja edo oporrenгатiko ordezkapenak.

Zehapenak



M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

Kontratu honen lizitazioaren agirietan dauden preskripzioetakoren bat bete ezean, kontratuaren arduradunak ohartarazpena helaraziko dio adjudikaziodunari, jakinarazpen justifikatuaren bidez. Ez-betetzea berriz gertatzen bada, faltatzat hartuko da.

Falta arintzat hartuko da, oro har zabarkeriaz edo axolagabekeriak egindakoa, baldin eta zerbitzuaren kalitateari kalte nabarmena egiten ez badio.

Falta astuntzat hartzen da zerbitzuaren kalitateari kalte nabarmena egiten diona, eraginik badu BBUPen zentroetan eragiketen garapenean, indarrean dagoen legeriaren behar bezalako aplikazioan eta zerbitzuaren garapen egokian. Falta astuntzat ere hartuko dira BBUPen teknikariei behin eta berriz desobeditzea, eta aplikatu beharreko legeria ez betetzea.

Bi (2) falta arin metatzeak falta astun bat (1) sortuko du.

Falta astun bat eginez gero, BBUPek dagokion ziurtagiriaren % 10eko zehapena ezarri ahalko du.

Baldin eta ez-betetzeak (arina edo astuna) aldi baterako edo unean uneko ordezkio kontratazioak premiaz egitea badakar, adjudikaziodunak kontratatzekeo gastua bere gain hartzeaz gain, BBUPek zehapena ezarri ahalko dio, hain zuzen kontratazioak BBUPentzat izandako kostuaren % 25ekoa.

Zehapenak ordaintzeko dauden zenbatekoetatik kenduko dira. Ez bada geratzen zenbatekorik ordaintzeko, zehapenak gauzatuko dira adjudikaziodunak kontratua sinatu aurretik eratu beharreko bermearen kontura.

Jarraian, zerrendatuta daude modu orientatzaile gisa, eta zerrenda zehatza, ezta baztertzailea ere, izan gabe, zehapenak dakartzaten eta kontratua indargabetzeko kausa diren kontratuaren ez-betetzeak:

FALTA ASTUNAK

- Indarrean dagoen legeria eta BBUPek bere instalazioetan jarduteko ezarritako arauak ez betetzea.
- Aplikagarri diren eta zerbitzuak exekutatzekeo behar diren arauak ez betetzea.
- Lanak egiteko bitarteko eta baliabide egokiak ez edukitzea.
- Kondizio-agirian eta kontratistak aurkeztutako lan-planeari ezarritako erantzute-denborak ez betetzea.

FALTA ARINAK

- Oro har, kontratuaren arduradunak ezarritako jarraibideak ez betetzea.
- Kondizio-agirietan ezarritakoak ez beste bitarteko eta hornidura batzuk edukitzea, kontratuaren arduradunak berariazko baimenik eman gabe.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguru dagoelako egiaztatzea.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez-aplikagarria.



O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

Bai ☒ Hasieran aurkezteko betebeharra

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Adjudikaziodunak kontratu honi ordezkari bat atxiki beharko dio, behar adinako gaitasuna duena kontratuaren harremanei eragiten dien guztian jarduteko eta/edo enpresa ordezkatzeko. Ordezkari horrek eta adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.